

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresak edo erakundeak ondo jarrai dezan, hainbat funtsezko jarduera egitea beharrezkoa da. Honi esker, balorezko proposamena egin dezakegu, bezeroei helaraztea lortu, bezeroekiko harremanak mantendu eta bukatzeko, diru-sarrerak lortzeko egin beharreko jarduera guztiak burutu.

Hiru funtsezko jarduera daude: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da bakoitzarentzat bizikleta bat edukitzea, janaria bertan garraiatu behar baitugu herriko etxebizitza ezberdinetara. Horrez gain, herriko tabernetako langileekin harremanetan jarri behar dugu, beraiek esango baitigute nora eramán behar dugun prestatu dutena. Gainera, produktuak azkar eta seguru garraiatzeaz arduratuko gara, batzuk bidean hoztu baitaitezke eta ondorioz, bezeroak galdu baititzakegu, horren ondorioz.

Jakiak hoztu ez daitezen, tabernariak bildu egingo dituzte eta ontzi batzuetan jarriko dituzte. Ontzi hauek, bizikletak dituen kartoiezko kaxa berezi batzuetan sartuko dira. Hauek nahi dugun tenperaturan mantenduko dute jakia.

Gure enpresak arazoan aurrean jarrera desberdinak izaten ditu. Adibidez, bizikletaren bati gorpilen bat zulatzen zaionean, berehala jartzen gara harremanetan inguruko tailerren batekin eta gurpila aldatzen dugu. Gainera, ahal bezain pronto mezu bat bidaltzen diogu bezeroari, arazo batzuegatik bere eskaria beranduago iritsiko dela esanez.

